

# BEER TON

Mahatserriko aldizkaria  
155 zenbakia • DOAN • 2012 ekaina

**Ibai Gomez**

**“Umetan aulkian izaten ninduten  
entrenatzaileek, txikiegia nintzen futbolerako”**



**“Umetan aulkian izaten ninduten  
entrenatzaileek, txikiegia nintzen futbolerako”**

**ELK**  
ELKARRIZKETA  
IBAI  
GOMEZ

Ibai Gomez 22 urteko santutxuarrak bi denboraldi daramatza Athleticen lehen taldean. Hala ere, aurtengo udaberrian etorri zaio jokatzeko aukera, eta ospea ere bai. Europa Ligan gol bi sartu ditu eta lehoiek jokatu dituzten final bietan parte hartu du, Kopakoan hasierako hamaikakoan. Hala ere, BERTONi eman dion elkarrizketa honetan gauza bat argi eta garbi geratu da: Ibai ez du jatorria ahazten, Santutxu bihotzean darama.

Testua: Dabi Piedra  
Argazkiak: Iñigo Azkona



**Europa Ligako eta Errege Kopako final bietan parte hartu zenuen, baina ezin garaikurrik irabazi. Nola bizi izan zenuen hori?**

Orain denbora pixka bat pasa da eta konturatzeko naiz oso polita izan zela, baina ez da oroitzen guztiz ona, gogorra da final biak galtzea.

**Hala ere, denboraldi bikaina egin du Athleticetik, ezta?**

Bai, zalantzarik gabe. Final bitan egotea oso zaila da eta guk lortu dugu. Baina ezin gara guztiz konforme egon, finalerara heltzea polita da, baina finalerara ez da joaten jokatzera, irabaztera baizik. Ea denboraldi berrian huts hori konpontzen dugun.

**Europako Ligan gol bi sartu zenituen, Schalke eta Sportingen aurka, zer sentitzen da horrelako une batean?**

Amets baten parekoa da, gainera gol biak San Mamesen izan ziren. Nik beti pentsatu dut gauza handia izan behar duela San Mamesen gola sartzea, baina Europako Ligan, jokoan hainbeste egonda, atera kontuak. Amets baten modura gogoratzen dut.

**2010eko udazkenean egin zenuen debuta Athleticen lehen taldean. Zelaira irten eta hiru minutura min hartu zenuen. Sentsazio kontrajarriak izan ziren hain denbora tarte laburrean?**

Zehazki bi minutu eta 38 segundu egon nintzen zelaietan. Debuta egitea gauza ona da, baina 3 minutu eskasera lesioa izatea gogorregia da, dena aldatzen da. Zazpi hile egin nituen jokatu ezinda, ametsa bizitzera irteten zara zelaira eta apurtu egiten da guztia. Hala ere, eguneroko lanari esker, ahal nuen guztia eginda, berriro bueltatzeko zortea izan nuen.

**Zu futbolaria zara, baina futbolzale amorratua ere bai, ezta?**

Bai, txikitatik beti gustatu izan zait futbola, beti baloiarekin ibiltzen nintzen, orain partidu asko ikusten ditut. Futbola alor inportantea da nire bizitzan. Orain webgune bat zabaldu berri dut, [www.ibaigomez.com](http://www.ibaigomez.com), jendearengandik ger-

tuago sentitzeko, zaleek mezuak bidaltzen dizkirate, argazkiak ipintzen ditut... Uztailean futbol kanpus bat ere antolatu dugu, umeentzat.

**Futboleko alor guztiak jarraitzen dituzu?**

Bai, gehienak. Lagun asko dauzkatzat Hirugarren Mailan, edo beheko mailetan jokatzeko, eta haiek ikusten joaten naiz. Eurokopa ere jarraitu dut, jakina.

**Txikitako zein oroitzen dakartzkizu futbolak?**

Beti ibiltzen nintzen lagunekin futbolekin. Baina futbol federatuan apuntatu nintzen, ez pentsa, une gogorak ere izan nituen. Ni txiki-txiki nintzen, ez neukan gorputzik besteekin lehiatzeko eta, beraz, gutxi jokatzeko nuen, aulkian egoten nintzen. Askok ikasi nuen horrekin, baina umetan gogor egiten da. Hamasei denboraldi egin nituen Santutxu futbol taldean, eta gehiengotik ordezkoa izan nintzen.

**Aita ere futbol mundukoa duzu (Mitxel, Santutxu taldeko presidente, entrenatzaile eta abar izandakoa) eta horrek lagunduko zizun.**

Bai, asko lagundu dit, une latzak nola gainditu badaki. Dena zor diot, eta amari ere bai, oso futbolzalea izan gabe ere, beti eramaten ninduelako futbolera, beti babestu eta ahoan nautuelako. Aitak inoiz ez dit ezer inposatu, neure bidea egiten utzi dit eta orain bera, eta ama, disfrutatzen ikustea zoragarria da.

**Santutxu futbol taldean, zeu ere umean entrenatzaile zara.**

Bai, hamar urte daramatzat, beti mutil berberekin gainera, bost urte zituztenetik entrenatu ditut eta orain kadete mailan daude. Nik ikasi-



takoa haiei irakastea da helburua, gauza handia da norbere jakintza besteiei eman ahal izatea, oso gustura nabil. Lehen Mailako taldearen konpromisoa dela eta, ez dakit denboraldi berrian jarraitu ahal izango dudana, baina gustatuko litzaidake. Eta urte batzuk barru, duda barik, entrenatzaile izateko asmoa daukat.

**Futbolaz gain, beste zaletasunik izango duzu?**

Lagunekin egotea, hori inportantea da. Gainera, tenisa ere atsegin dut, txikitatik, eta batez ere orain, uda partean, aprobetxatzen dut teniseen jolasteko. Hondartza ere gustatzen zait.

**Zer erakutsi dizu Marcelo Bielsa entrenatzaileak?**

Batez ere saltoa ematen lagundu dit, badi-rudi nire jokoa haren estilora moldatzen dela. Guk egiten dugun futbola zaila da, konplexua, eta asko erakutsi digu berak, asko landu dugu joko estiloa. Hori bai, entrena-

tzaile berezia da, besteengandik total diferentea. Izaeraz ere, berarekin egon eta harritu egiten zara. Detalle bat ere bai: ni baino askoz futbolzaleagoa da, hura bai bizi dela 24 orduz futbolekin pentsatzen!

**Kontratua berri duzu oraintsu Athleticekin, beste denboraldi biko. Zer helburu daukazu talde zurigorrian?**

Egunero mugak gainditzeko lan egin behar da. Helburu asko daukat, euskal selekzioarekin joatea, Athletici gehiago ematea, bi denboraldi eta gero beste urte askoan ere han jarraitzea eta abar.

**Erretiratu eta gero entrenatzaile izateko asmoa daukazula aipatu duzu.**

Bai, goi mailako entrenatzaile titulua ateratzeko ikasten ari naiz. Oso inportantea da niretzat entrenatzaile lana, orain ere gaztetxoekin oso pozik nabil. Ez dakit zein mailatan, baina entrenatzaile izango naiz.

**“Santutxuko ordezkarria naiz Athleticen eta hori ametsa da”**



**ELK**  
IBAI  
GOMEZ

## BOST GALDERA LABUR

**Gustuko futbolari bat:** Zidane  
**Partidurik ez dagoenean, jateko zer?**

Arroza kubatar erara eta lasaina

**Kirol bat (futbolaz gain):** Tenisa eta padela

**Oporretako leku bat:** Ibiza eta Menorka

**Athleticek noiz aterako du gabarra?** Datorren urtean, ziur.



**Futbolari ospetsua izan arren, zeure auzoa, Santutxu, ez duzu ahazten eta oraindik bertan bizi zara. Zer da Santutxu zuretzat?**

Nire auzoa da, etxe berria erosi dut eta Santutxun erosi dut, hemen egon nahi dudalako, hemengo jendea bikaina da, giroa ere bai. Gauza onak baino ezin ditut esan, maitatu egiten naute auzotarrek. Santutxuko ordezkaria naiz Athleticen eta hori ametsa da.

**Karmelo Ikastolan ikasi zenuen, hango oroitzapenak zelakoak dira?**

Oso onak, irakasleak eta ikaskideak oso jatorrak ziren. Karmelo Ikastolan eta, gero, Solokoetxen eta Gabriel

Aresti institutuan ere ikasi nuen eta denetan oso ondo.

**Ikastolan euskaraz ere ikasi zenuen, Athleticen gero eta euskara gehiago entzuten da?**

Nik uste dut baietz. Aldagelan bagaude euskaldun batzuk eta ahalegintzen gara geure artean egiten. Koikili, Gabilondo, San Jose eta horiekin ia beti euskaraz. Gero zelaian beti ezin da, taldekide batzuek ez dutelako ulertzen. Baina gu gizartearen ztat eredu gara, ni sarri joan naiz Koikilirekin ikastetxeetara umeekin egotera eta ereduia zarella konturatzen zara. Guk, Athleticeko jokalariorik, euskaraz egiten badugu, umeei ulertuko dute euskara gauza positiboa dela.

Orain, **BILBON**  
MIRIBILLA<sup>n</sup>, BILBAO ARENAren ondoan

**Ibar Ezkerra**  
Lanbide Ikastola  
[www.ibarezkerra.net](http://www.ibarezkerra.net)

Banakako arreta  
94 472 43 66

**MIKROINFORMATIKA-SISTEMAK ETA SAREAK**

**BIZKAIA OSOAN EUSKARA HUTSEAN EMATEN DUEN ZENTRO BAKARRA**

Eusko Jaurlaritzak itundutako zentroa

**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA HEZKUNTZA GAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN